



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 2a

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2015eko ekainaren 2ko bileran, erabaki hau hartu du:

Tramitzatzeko onartzea, Jaurlaritzari eta Osoko Bilkura eta Batzordeen Atalari bidaltzea eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea EH Bildu taldeak batzordean eztabaidatzeko egin duen legez besteko proposamena, Hezkuntzako fisioterapeuten kolektiboari dagokion kategoria ekonomikoa aitortzearen inguruan (10\11\02\01\0784-30136).

Horren berri ematen dizut, Jaurlaritza jakitun egoteko eta hortik aurrerako ondorioetarako.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 2 de junio de 2015

Excmo. Sr.:

La Mesa del Parlamento Vasco, en su reunión del día 2 de junio de 2015, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Admitir a trámite, remitir al Gobierno y a la Sección de Plenos y Comisiones y publicar en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco la proposición no de ley para su debate en Comisión formulada por el grupo EH Bildu, relativa al reconocimiento de la categoría económica correspondiente al colectivo de fisioterapeutas de Educación (10\11\02\01\0784-30136).

Lo que comunico para conocimiento del Gobierno y subsiguientes efectos.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria



LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Belen Arrondo Aldasorok, EH BILDU taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaile ordeak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatua izan dadin, **“Hezkuntzako fisioterapeuten kolektiboari dagokion kategoria ekonomikoa aitortzearen inguruan”**:

ZIOA:

Gaur egun Hezkuntzako fisioterapeuten kolektiboa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Sailaren menpeko lan legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren arabera arautzen da. Lan hitzarmeneko 9. Kapituluari, langileak kategorietan sailkatzen dira eta titulazio akademikoen arabera erdi mailako teknikariak izanik, fisioterapeutak B taldean sartzen dira. B taldean daude ere logopedak eta haur eta lehen hezkuntzako irakasleak eta hauekin alderatuz, fisioterapeutak jasotzen dituzten ordainsariak txikiagoak dira inolako justifikaziorik gabe.

Ordainsarien parekatzea administrazioaren partetik, behin baino gehiagotan, proposatu da. Are gehiago, aurre-akordio batean sinatzera iritsi da, baina negoziazioko beste puntu batzuk baldintzaturik ez da inoiz gauzatzera iritsi. Suposatzen duen konparaziozko bidegabekeria dela eta, gai zehatz honi premiazko konponbidea eman behar zaio, egon daitezkeen beste gai laboral batzuen baldintzapetik at

Hau guztia dela eta, hurrengo Legez Bestekoa aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Fisioterapeuten ordainsariak, Hezkuntza Sailaren menpe eta titulazio akademiko berdina duten Haur eta lehen Hezkuntzako irakasleen ordainsariekin parekatu ditzala.

- Ordainsarien parekatzea 12 hilabetetako atzeraeragina izaerarekin gauzatzea.
- Beharrezkoak diren neurriak hartu eta baliabideak jar ditzala gehienez hiru hilabeteko epean homologazioa gauzatu dadin.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 28an

Belen Arrondo Aldasoro

EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaile ordea

A LA MESA DEL PARLAMENTO

Belen Arrondo Aldasoro, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del Reglamento vigente, presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY, relativa al reconocimiento de la categoría económica correspondiente al colectivo de fisioterapeutas de Educación, para su debate en la Comisión de Educación.

Justificación

Actualmente el colectivo de fisioterapeutas de Educación es regulado según el convenio colectivo de las y los profesores y educadores que son trabajadores laborales dependientes del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco. En el capítulo 9º del convenio laboral, los y las trabajadoras son clasificadas en categorías y, siendo técnicos medios según las titulaciones académicas, los fisioterapeutas son incluidos en el grupo B. En este grupo B se encuentran, asimismo, las y los logopedas y las y los profesores de Educación Infantil y Primaria y, en comparación con ellos y ellas, los sueldos que reciben las y los fisioterapeutas son inferiores, sin ninguna justificación.

En varias ocasiones se ha propuesto la equiparación de sueldos por parte de la Administración. Más aún, se ha llegado a firmar un preacuerdo, pero nunca se ha llegado a ejecutar, al estar condicionado por otros puntos de la negociación. Dado





el agravio comparativo que supone, hay que dar una solución de urgencia a este tema concreto, independientemente de lo condicionado por otros asuntos laborales que puedan existir.

Por todo ello, presenta la siguiente proposición no de ley.

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

- Equipare los sueldos de los fisioterapeutas con los sueldos de los profesores y profesoras de Educación Infantil y Primaria dependientes del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura que tienen una titulación académica igual.
- Realice la equiparación de salarios con un carácter retroactivo de 12 meses.
- Adopte las medidas necesarias y disponga los medios necesarios para que la homologación se realice, como máximo, en el plazo de tres meses.

Vitoria-Gasteiz, 28 de mayo de 2015

Belen Arrondo Aldasoro

Parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu

